

IKASLEEI BEKAK EMATEKO OINARRIAK

LEHENA.- Beken deialdia eta norainokoa

1.- Fundazioko Lehendakaritzak, ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan, dagokion deialdia iragarriko duo Deiadiak, Zuzendaritza Batzordeak onetsitakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea eta emango diren gehieneko beka-kopurua - Fundazioko aurrekontuetan horretarako aurreikusitako kopuruaz ordain daitekeen zenbatekoa- adieraziko ditu. Deialdia Kontserbatorioko iragarki-tauletan argitaratuko da.

2.- Ikasturte bakoitzean emango den beka kopurua, Fundazioko aurrekontuetan xede horretarako aurreikusitako kopuruarekin ordain daitekeena izango da. Kopuru hori oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean banatuko da. Horretarako, Laugarren Xedapenean deskribatutako baremoa ezarri ondoren puntuaziorik handiena lortutako eskatzaileari ezarriko zaion diru laguntzaren ehuneko %70 izango da, eta baldintzak betetzen dituzten gainerako eskatzaileei modu proportzionalen murriztuko zaie zenbateko hori puntuazioaren arabera. Diru laguntzaren ehunekoa matrikularen eta onuradun ikaslea egiten ari den ikasketa guztien kuoten osoko baturari ezarriko zaio, baina material didaktikoagatik ordaindutako kopurua ez da sartuko.”.

2016/17 ikasturterako ohikoa denez emagon den diru kopurua 20.000 eurokoa izango da.

2016.eko aurrekontuetara kargatuz, diru laguntzetarako erabilgarri dagoen kreditura lotua (92000/480.00.00 – Ikasleentzako dirulanguntzak), 12.203,55 €.

2017ko aurrekontuetara kargatuz, zenbatekoa murriztuz, kreditu egokiari baldintzatuta eta horretarako hurrengo aurrekontuetara egokitua.

3.- Beka bana ikasturte emango dira, dagozkion xedeetarako ikasturte bakoitza apartekoa izanez.

BIGARRENA.- Betekizunak eta eskabideak aurkeztea

1.- Bekagai izateko, ikasleak honako baldintza eta betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Leioako bizilaguna izatea, beka-deialdiaren aurreko urteko irailaren

1 etik behintzat.

b) Ikastegi hauetako batean ematen den ikaskuntza edo ikastaro batean matrikulatuta egotea:

1. Musikoterapia.
2. Musika-Eskola, Hastapen bazterturik

2.- Profesional Kontserbatorioa.

e) Beka-deialdiaren urtean 18tik beherakoa izatea - Musika Eskolan matrikulatuta badago- edo 22 urtetik beherakoa izatea- Profesional Kontserbatorioan matrikulatuta badago- .

d) Aurreko urteotan Fundazioaren mendeko ikastegi baten beste ikasketarik egin badu, gutxienez, hamabi puntuko batez besteko kalifikazioa lortu beharko du laugarren oinarriko d) atalean zehazten den ikasketa-ebaluazioan. Ikasleak Fundaziotik kanpoko ikastegi baten ikasketarik egin badu, ez da baldintza hau kontuan hartuko, ezta 4. oinarriko D atalearen arabera puntuak ematerakoan ere.

e) Bizikidetzarako unitatearen diru-sarrera garbiaren urteko kopurua ezin izango da, deialdiaren aurreko urtean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren hirukoitza baino handiagoa izan. Ondorio hauetarako, hortaz, hileko gutxieneko soldatari dagokion kopurua hartuko da kontuan eta 14z biderkatuko da urteko gutxieneko soldata zehazteko. Rala eta guztiz ere, aurreko ataletan adierazitako betekizunak betetzen dituzten eskatzaile bi edo gehiago bizi diren bizikidetzarako unitate batean, bigarrenetik hasita -bigarrena bame- esandako muga 0,1 Ona puntu eskatzaile handituko da.

2.- Eskabide-orriak Fundazioko Presidenteari bidaliko zaizkio eta deialdian adierazitako epearen barruan aurkeztuko dira Idazkaritzan. Ikaslearen izen-abizenak, helbidea eta matrikulatutako ikasketak adieraziko dira eskabidean.

HIRUGARRENA.- Eskabideak izapidetzea

1.- Ikastegiaren Zuzendaritzak aztertuko ditu eskabideak. Ondoren, Zuzendaritzak, gehienez hamar egunetan, txostena aurkeztuko dio Fundazioko Lehendakariari, aurreko ataleko a), b) eta e) ataletako betekizunak betetzen dituzten bekagaiak adieraziz.

2.- Aurreko izapidea egin ondoren, Fundazioko Lehendakariak, Fundazioko administrazio-zerbitzuei eskatuko die, hamar eguneko epearen barruan, eskatzaileen ekonomia- eta bizikidetzeta-baldintzei buruzko txostena egin dezatela, bizikidetzarako unitatearen diru-sarrera guztiak eta unitatearen lagun-kopurua zehaztuz. Horretarako, interesdunek, deialdiaren aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren kopia askietsia eman beharko diete Gizarte Zerbitzuei, baita bizikidetzarako unitatearen eta uniteteko diru-sarreraren baldintzak behar bezala egiaztatzeko eskatuko zaizkien datuak eta agiriak ere.

Isilpekoa izango da txostena eta Fundazioko Zuzendaritza Batzordeak beken emakida erabakitzeke bakarrik erabili ahal izango du

3.- Aurrean adierazitako txostena egin ondoren, Fundazioko Lehendakariak Ikastegiko Zuzendaritzari eskatuko dio, 4. oinarriko d) atalean zehaztutako Ebaluazio Batzordera deitzeko, bekagaien ikasketa-maila ebalua dezan.

Aurreko izapideak egin ondoren, Ikastegiko Zuzendaritzak, Ikastegiko Idazkaritzaren laguntzarekin, hurrengo oinarriaren arabera, puntuak esleituko ditu betekizunak bete dituzten bekagaiekin.

4.- Aurreko jarduketa guztiak egin ondoren, espedientea Fundazioko Zuzendaritza Batzordeari emango zaio, honako hauei buruzko erabakiak har ditzan:

a) Bekagai-zerrendatik kanpo utzi direnen zerrenda, zergatik baztertu diren zehaztuz.

b) Puntuen arabera, hasiera batean, beka dagokien ikasleen zerrenda.

e) Puntuen arabera, hasiera batean, bekarik ez dagokien ikasleen zerrenda.

Erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, eta hamar eguneko epea izango dute espedientea aztertzeke eta egoki deritzotena agertzeke.

Epe hori bukatu ondoren, Zuzendaritza Batzordeak, arrazoibideak aztertu ondoren eta dagozkien zuzenketak egin ondoren, behin betiko ebazpena onetsiko du

LAUGARRENA- Bekak esleitzeko irizpideak

1- Honako baldintza hauek kontuan hartuz esleituko dira beka, ondorengo baremotik ondorioztatzen den puntuazio-ordenaren arabera:

A.- Bizikidetzarako unitatearen diru-sarrerak:

* LGSren 1,00etik beherakoa: 30 puntu.

* LGSren 1,00-1,25 bitartean: 25 puntu.

* LGSren 1,25-1,50 bitartean: 20 puntu.

* LGSren 1,50-1,75 bitartean: 16 puntu.

* LGSren 1,75-2,00 bitartean: 12 puntu.

* LGSren de 2,00-2,25 bitartean: 9 puntu.

* LGSren 2,25-2,50 bitartean: 7 puntu.

* LGSren 2,50etik gorakoa: 5 puntu.

* LGSren 2,7 5etik gorakoa: 4 puntu.

Diru-sarrerak urteko sarreren kopuruaren arabera zehaztuko dira eta

bizikidetzarako unitetekide guztiek beka-deialdiaren aurreko urtean irabazitako kopuruak hartuko dira kontuan, eta gaur egun Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-bekak ematerakoan egin ohi duen bezala zenbatuko dira. Lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) horrela zehaztuko da: deialdiaren aurreko urtean indarrean dagoen LGSa 14z biderkatuz.

B.- Bizikidetzarako unitatekide-kopurua:

* 2 unitatekide: 2 puntu.

* 3 unitatekide: 3 puntu.

* 4 unitatekide: 5 puntu.

* 5 unitatekide: 7 puntu.

* 6 unitatekide: 9 puntu.

* 7 unitatekide edo 7tik gora: 11 puntu.

C> Fundazioaren mendeko Ikastegi batean matrikulatutako bizikidetzarako unitatekideak:

- Eskatzailea ez den unitatekide bakoitzeko: 2 puntu.-

D.-Ikasketen ebaluazioa Aurretik Fundazioaren mendeko ikastegi batean ikasi edo musikoterapia modalitatean matrikulatuak dauden bekagaiengan bakarrik izango du eragina

Ebaluazio Batzordea eratuko da horretarako. Ikastegiko Zuzendaritza izendatuko du batzordea, eta bekagai bakoitzaren bi irakaslek, irakasgai nagusiaren irakasle batek eta irakasgai kolektiboaren irakasle batek osatuko dute. Batzordeak ezarriko ditu puntuazio-irizpideak (gehienez, 25 puntu) eta interesdun bakoitzari bere ikasketa-mailaren arabera dagozkionak emango dizkio.

Gutxienez hamabi puntu lortzen ez duena - bigarren oinarrian, 1. zenbakian, (d)7 atalean ezarritakoaren arabera- zerrendatik kanpo geratuko da, oinarrian ezarritako baldintza betetzen ez duelako. Musikoterapia modalitatean 20 puntu emango dizkio.

E.- Irakaskuntzaren kostua:

Irakaskuntzaren kostua hezkuntza-mailen arabera denez, kostu handiena duten ikasleei mesede egiteko puntu-esleipen hau egingo da, matrikulatutako ikastegiaren eta ikastaroaren arabera:

a) Profesional Kontserbatorioa: 6 puntu.

b) Musika Eskola 3.4. modulua indartua: 3 puntu

c) Musikoterapia eta Musika Eskola modulu indartua bazterturik: 0 puntu .

2.-Puntuazio berdina izanez gero, lehentasuna izango du A atalak

ezarritakoaren arabera puntu gehien lortu duenak, eta berdinketak jarraitzen badu, lehentasuna izango du D atalak ezarritakoaren arabera puntu gehien lortu duenak. Rala ere, berdinketak jarraitzen badu, E atalaren arabera puntu gehien lortu duenak izango du lehentasuna, gero, C atalaren arabera, eta gero, B atalaren arabera. Berdinketak jarraituz gero, lehentasuna izango du Kontserbatorioan ikasten urte gehiago daramanak. Azken irizpidea hau izango da: lehentasuna izango du adin gutxiagoko ikasleak gehiagokoaren aurrean.

3.- Zentroan ikasten duten bizikidetzarako unitatekideak asko badira, haietako batzuek beka izateko eskubidea badute, puntuazioaren koefiziente murriztailea ezarriko da, eskala honen arabera:

- Bizikidetzarako unitateko bigarren kideari dagokionez, bere puntuazioa 0,75ez biderkatuko da eta emaitza, beka ematerakoan kontuan hartuko den puntuazioa izango da.
- Bizikidetzarako unitateko hirugarren kideari dagokionez, bere puntuazioa 0,50ez biderkatuko da eta emaitza, beka ematerakoan kontuan hartuko den puntuazioa izango da.
- Bizikidetzarako unitateko gainerako kideei dagokienez, beren puntuazioa 0,30ez biderkatuko da eta emaitza, beka ematerakoan kontuan hartuko den puntuazioa izango da.

Elkarbizitza unitateko kidei aplikatuko zaien koefiziente murriztailea esleitzeko interesatuei onura gehien egiten dien modua baliatuko da, Batzorde Errektorearen irizpideen arabera.

BOSGARRENA.- Intzidente Arazoak

Fundazioaren Batzorde Errektoreari dagokio oinarri hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak argitzea eta oinarri hauetan jaso ez diren gaiak buruz erabakiak hartzea.

SEIGARRENA.-

Ikasleren batek oinarri hauekin bat etorri beka lortuz gero eta ikasturte bererako beste bekaren bat lortzen badu Fundazio honen mendeko beste udal zentro batean ikasketak ordaintzen laguntzeko edo ordaintzeko, Soinu Atadia

Fundazioaren beste beka horren zenbateko osoa edo partziala itzultzera behartuta egongo da, baldin eta bien arteko batuketa ikasturtearen kostuaren %70a gainditzen badu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehena.- Araudi honen ondorioetarako elkarbizitza unitate gisa ulertuko da ezkontza lotura izan gabe familia unitatearen egitura antzekoa duen unitatea.

Elkarbizitza unitatea existitzen dela ziurtatzeko egokiak jotzen diren txostenak edo dokumentuak aurkeztea eskatu ahalko da.

Bigarrena: 1.- Salbuespen gisa, deialdiaren aurreko urtean beka eskatzen duen ikaslearen elkarbizitza unitatearen diru sarrerak 2. oinarriko 1.e) atalean jasotako muga baino handiagoak izan badira, eta deialdiaren urtean diru sarrerak ez badute aurreko urteko muga gainditzen, deialdiaren urte horretako datuak aintzat hartu ahalko dira; diru sarrerak ziurtatu eta egiaztatu egin beharko dira, beharrezkotzat jotzen diren dokumentu guztiak aurkeztuz

2.- Kasu honetan, 4. oinarriko 1.a) atalean azaltzen da puntuak nola emango diren, eta diru sarreraren erreferentzia gisa ere hartuko da, baita deialdiko urteko lanbide arteko gutxieneko soldata ere.

3.- Baldin eta azkenean interesatuak beka jasotzen badu, baldintza suntsiarazlearen pean egongo da, eta deialdiaren hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren kopia aurkeztu beharko du, dokumentu horretan islatutako diru sarrerak aplikatu beharreko muga baino gehiago ez direla ziurtatzeko, lanbide arteko gutxieneko soldatarekin alderatuz.

Muga gaindituz gero, bekari esker ordaindu ez diren zenbatekoak ordaindu egin beharko dira.